



Indarkeria sexistarik gabeko GUNEA

HELBURUAK

- Emakumeak eta herritarrak, oro har, indarkeria sexistaz kontzientziatzea
- Emakumeek jaietan indarkeria sexistarekiko dituzten bizipen, iritzi eta interesak jasotzea
- Babes eta elkartasun gunea irudikatzea eta indarkeria-ri aurre egiteko bitartekoak erraztuko dituen erreferentzia gunea sortzea
- Erasotzaile izan daitezkeenei dena libre ez dela eta erasoak dauden kasuetan erantzuna izango dutela ohartaraztea
- Emakumeek beren burua defendatzeko duten gaitasunaz jabeaztea eta, horretarako, bitarteko eta lan tresnak eskaintzea
- Maitasun erromantikoaren eredia zalantzan jarri eta plazerean oinarritutako harreman osasuntsuak bultzatzea

GUNEAN ESKAINTZEN DIREN BALIABIDEAK

Eraso sexistarik gabeko gabeko gunean une oro Emagin elkarteko bi aditu egongo dira gunea dinamizatzen: bertatutakoei aholkularitza ematen, eta, zalantzak eta kezkek argitzen.

- ESKAINIKO DEN MATERIALA

Eskuorriak

Kontzientzia astindu!

Arbela

Eman zure iritzia!

Txapa makina

Egin zurea!

Pegatinak

Adierazi zure konpromisoa!

IRIZPIDEAK

- Eskaera hilabete lehenago egin beharko da.
- Koordinazio bilera bat beharrezkoa izango da teknikari, mugimendu feminista zein herri mugimenduko kideekin... protokoloa ezagutu zein zerbitzua koordinatzeko.
- Zerbitzua egun batean baino gehiagotan egingo bada materiala gordetzeko leku bat.
- Saio bat bertan behera gelditzen denean honela kobratuko da: 24 ordu lehenago jakinarazten bazaigu, %100; 24-72 ordu tartean abisatuz gero, ez da ezer kobratuko atera den saioa epe ertainean egiteko konpromisoa hartzen bada, behin bakarrik kobratuko da.
- KOTXE GUNERA SARTZEKO AUKERA. Guneako gauzak eraman eta karga eta deskarga egin ahal izateko, kotxea Guneako lekuraino sartzeko beharrezkoa izango dugu, beraz, hau egin ahal izateko beharrezkoak diren permisoak eduki. Horrez gain, ahalik eta hurbilen aparkatu ahal izatea garrantzitsua da, Gunean bakarrik gelditzeko tartea ahalik eta txikiena izateko, beste kidea aparkatzen dagoen bitartean.
- 12 URTETIK GORAKOENTZAT. Guneako publiko hartzailea 12 urtetik gorakoentzat da, honela bada, bertako materiala eta zerbitzua adin horretatik goragoko pertsoneri dago zuzendua. Herritarrek hau jakitea beharrezkoa ikusten dugu.
- PROPAGANDA. Udalak edota zerbitzu kontratatzaileak, zerbitzuaren inguruko propaganda egitea eskatzen dugu, herritarrak jakinaren gainean egon daitezen Gunearen presentzia eta egitekoaz.
- LEKUA. Gunea jartzeko ordua eta lekua zehaztean garrantzitsua izango da elkarrizketa bat eman ahal izango den lekua izatea. Jaietan zarata egotea ohikoa den arren, kontzertuen ondoan ez egotea, izan ere honek erabiltzaileekin elkarrizketak ematea oztopatzen baitu.
- ARGIZTAPENA. Gunea gauean jartzen denean, elektrizitate toma bat beharko dugu, argiztapenerako. Hau ziurtatzea eskatzailearen esku geldituko da.